

AKORDIOA, 2019KO, 2020KO, 2021EKO ETA 2022KO LAN-ESKAINZA PUBLIKOEI DAGOZKIEN ENPLEGU PUBLIKOA EGONKORTZEKO EZOHIKO PROZESUA FUNTZIONARIO GISA SARTZEKO ZUZENDUKO DUTEN EPAIMAHAIARENA.

Lehiaketa-fasearen barruan, hau da, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratzeari dagokiona., 8.5.2 oinarri orokorraren bigarren paragrafoak honako hau dio: «Bat etorrira 39/2015 Legeko 68. artikulua adierazitakoarekin, alegatutako merezimenduak egiaztatzeke agiriak falta badira, UPV/EHUk iragarki bat argitaratuko du web gunean jakinarazteko interesdunei hamar (10) egun balioduneko epea daukatela akatsak zuzendu edo falta diren nahitaezko dokumentuak bidaltzeko, eta, horrela egin ezean, merezimenduok ez direla kontuan hartuko lehiaketa fasean».

Beraz, hautaketa prozesuko epaimahaiak, deialdiko zortzigarren eta hamabigarren oinarri orokorreki eta oinarri espezifikoien laugarren puntuari jarraituz, honako hau erabaki du:

LEHENA. Alegatutako merezimenduen dokumentazioan epaimahaiaren ustez akatsak edo hutsuneak dauzkaten edo, Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoan horiek egiaztatzeke baimena eman arren, egiaztapen hori egin ezin izan dutenen hautagaiei eskatzea horiek konpon ditzaten.

BIGARRENA. -UPV/EHUko Langileen Atarian (https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp) iragarki bat argitaratzea, interesdunek ikus dezaten zer eta nola zuzendu behar duten.

HIRUGARRENA. Hamar (10) egun balioduneko epea zabaltzea, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, zerrendan aipatzen diren merezimenduen egiaztagirien akatsak zuzentzeko.

LAUGARRENA. - Interesdunei jakinaraztea hala egin ezean merezimenduok ez direla aintzat hartuko prozesuko lehiaketa fasean.

BOSGARRENA. - Dokumentazioa aurkez daiteke UPV/EHUko egoitza elektronikoan, UPV/EHUko erregistro orokorreko laguntza-bulegoan erregistroetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aipatzen diren lekuetan (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 16.4 art.).

Leioan,

Epaimahaiko idazkaria